# IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA
# *ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN*

Irurtzunen, bi mila eta hogeita bateko maiatzaren 4ean, arratsaldeko 19:30ak direnean, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Irurtzungo udaletxeko osoko bilkuren aretoan udalbatza elkartu da ohiko bilkura egitearren, Aitor Larraza Carrera alkate - lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

*En Irurtzun, siendo las 19:30 horas del día 4 de mayo de dos mil veintiuno se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar sesión ordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Aitor Larraza Carrera, con la asistencia de los siguientes Concejales y Concejalas:*

Agurtzane Garijo Peralta andrea.

Eduardo Murugarren Frances jauna.

Joseba Royo García jauna.

Ana Santander Lizaso andrea.

Antonio Ollakarizketa Elizondo jauna.

Ana Balda San Juan andrea.

Enrique Tenorio Ruiz jauna.

*Dña. Agurtzane Garijo Peralta.*

*D. Eduardo Murugarren Francés.*

*D. Joseba Royo García.*

*Dña. Ana Santander Lizaso.*

*D. Antonio Ollakarizketa Elizondo.*

*Dña. Ana Balda San Juan.*

*D. Enrique Tenorio Ruiz.*

Naiara Gartzia Royo andreak, Luis Enrique de la Calle Moreno jaunak eta Domingo Goñi Sarasola jaunak ez dute etortzerik izan.

*Excusan su asistencia Dña. Naiara Gartzia Royo, D. Luis Enrique de la Calle Moreno y D. Domingo Goñi Sarasola.*

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Dña. Eguzkiñe Aiesa Andres.*

**1.- 2021ko martxoaren 23an ospatutako Osoko Bilkuraren aktaren onarpena, hala badagokio.**

Aho batez onartu da 2021eko martxoaren 23an ospatutako ohiko osoko bilkuraren akta.

***1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 23 de marzo de 2021.***

*Se aprueba por unanimidad el acta del pleno ordinario del día 23 de marzo de 2021.*

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2021/92-tik 2021/132 ebazpenera.**

Udalbatza 2021/92 ebazpenetik 132/2021 bitarteko ebazpenez jakitun geratu da.

***2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 92/2021 hasta la 132/2021.***

*El Pleno se da por enterado de las resoluciones 92/2021 a 132/2021.*

**3.- 2021/1 aurrekontu moldaketaren hasierako onespena, hala badagokio.**

Alkateak azaldu du Pikuberri Elkartearekin Barazkigunen pasabide publikorako belena ereiki eta gaitzeko egindako kudeaketa - hitzarmenetik eratorritako betebeharrei aurre egiteko moldaketa dela.

Zehaztu du gastu hori 10.337,01€-koa dela eta aurrekontu parte - hartzaileen partidaren bidez aurre egitea dela proposamena; izan ere, horretaz arduratzen den lantaldeak uste du, dagoen osasun - egoera dela - eta, aurten ez dela segurua prozesua aurrera eramatea. Hala, parte - hartze prozesua 2021eko irailean hastea da asmoa, 2022ko Aurrekontu Orokorrean jasoko den partida bati buruz erabakitzeko, ohi zena baino handiagoa izango dena. Gainera, parte - hartze prozesuaren hasiera atzeratzen ari dela aprobetxatuz, modu kualifikatuagoan landuko dira gardentasuna eta parte hartzeko baldintzak.

***3- Aprobación inicial de la modificación presupuestaria 1/2021, si procede.***

*El Alcalde explica que se trata de una modificación con la que hacer frente a las obligaciones derivadas del convenio de gestión realizado con la asociación Pikuberri Elkartea, por el que se construye y habilita al paso público una belena en Barazkigune.*

*Especifica que la propuesta es que dicho gasto, que asciende a 10.337,01€, se afronte mediante la partida de presupuestos participativos, ya que el grupo de trabajo encargado de esto considera que, debido a la situación sanitaria, este año no es seguro llevar a cabo el proceso. Así, la idea es iniciar el proceso participativo en septiembre de 2021, para decidir sobre una partida que se recogerá en el Presupuesto General de 2022, que será mayor de lo que habitualmente venía siendo. Además, aprovechando el retraso del inicio del proceso participativo, se trabajarán de una manera más cualificada la transparencia y los requisitos de participación.*

Proposatzen den aurrekontu - aldaketak osoko bilkuraren onespena behar du, partida berria delako eta indarrean dagoen Aurrekontu Orokorrean jasota ez dagoelako.

*La modificación presupuestaria que se propone necesita de la aprobación del Pleno, por tratarse de una partida nueva, no recogida en el Presupuesto General vigente.*

Hitzen txanda irekita, ez dago halakorik izan; gaia bozkatu da, eta **osoko bilkurak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Abierto el turno de palabras, no las hay; se somete el asunto a votación, ante lo que* ***el Pleno, por unanimidad, acuerda****:*

LEHENENGOA.- 1/2021 aurrekontuaren moldaketa hasiera batez onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 1/2021.*

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean jasotakoaren arabera, onartutako aurrekontu-moldaketak Idazkaritzan egongo dira 15 egun baliodunez ikusgai, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Epe hori igaro ondoren erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira aipatutako moldaketak.

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra y en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, por la que se regulan las Haciendas Locales, las modificaciones presupuestarias aprobadas se expondrán en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobadas definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formulasen reclamaciones.*

**4.- Bi Ahizpe kaleko 11-Bren baxuan dagoen lokala soberako lursail deklaratzea, hala badagokio.**

***4.- Declaración de parcela sobrante del local sito en el bajo del 11-B de la calle Dos Hermanas, si procede.***

Alkateak Bi Ahizpe kaleko 11-B etxabean dagoen lokala soberako deklaratzeko espedientea izapidetu dela azaldu du. Espediente hori otsailaren 25eko 72/2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez ireki zen.

*El Alcalde explica que se ha tramitado el expediente oportuno para declarar sobrante el local sito en el bajo del 11-B de la calle Dos Hermanas, incoado mediante Resolución de Alcaldía 72/2021, de 25 de febrero.*

Hitzen txanda irekita, Udalbatzak hari uko egin dio. Horrenbestez, bozkatu egin da. **Udalbatzak, aho**

*Abierto el turno de palabras y rehusando la Corporación su uso, se procede a votar. El Pleno,* ***por unanimidad,***

**batez, honako akordioa onartu du:**

LEHENENGOA.- Bi Ahizpe kalea, 11-B, baxuan dagoen lokala soberako deklaratzea. Lokal horrek 20,56 m²-ko azalera eraikia du, eta 18,38 m²-ko azalera erabilgarria; iparraldean banandu zen finka du mugakide; hegoaldean 3. Atariko beheko solairua eta eraikinaren ataria; ekialdean Donostiako errepideko aterpeak eta mendebaldean lehenengo solairuaren mailan dagoen kanpoko fatxada.

BIGARRENA.- Udal kontu - hartzailetzari erabaki honen berri ematea, ondasunaren izaera juridikoa aldatu ondoren inbentarioa alda dezan, OEren 34. artikuluan xedatzen den bezala, eta dagokion Jabetza Erregistroan kalifikazio berria egokitzeko.

HIRUGARRENA.- Alkateari erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ditzan ahalmena ematea.

***adopta el siguiente Acuerdo:***

*PRIMERO.- Declarar sobrante el local sito en la calle Dos Hermanas, 11-B, bajo, con superficie construida de 20,56 m², y útil de 18,38m², que linda al norte, con la finca de la que fue segregada; al sur, con la planta baja del portal 3 y con el portal del edificio; al este, con los porches cubiertos sobre carretera de Donostia y al oeste, con la fachada exterior a nivel del piso primero.*

*SEGUNDO.- Dar traslado de este acuerdo a la Intervención del Ayuntamiento para la modificación del Inventario tras el cambio de su naturaleza jurídica, tal y como se dispone en el artículo 34 del RB y adecuar la nueva calificación en el Registro de la Propiedad correspondiente.*

*TERCERO.- Facultar al Alcalde para la realización de cuantas actuaciones resulten necesarias para la ejecución del presente acuerdo.*

**5.- Lizarra kaleko 12.ean dagoen eraikinaren salerosketa proposamena eta alkatetzaren ahalduntzea, hala badagokio.**

Alkateak azaldu du proiektu bat landu dela Musika Eskola udalerriaren erdigunera jaisteko, mugikortasun urriko pertsonentzako irisgarritasuna hobetzeko eta, gainera, Irurtzungo etxebizitza tipiko bat birgaitzeko. Proiektu horrek eraikin berean auditorio bat barne hartzen du.

Horretarako, eta udal arkitektoaren oniritziarekin, proposamen bat egin zaio Migelonarena deitzen dioten Lizarra kaleko 12. zenbakiko eraikina kudeatzen duen higiezin -enpresari, eskaintzatik

***5.- Propuesta de compraventa del inmueble sito en la calle Estella, 12 y habilitación de Alcaldía, si procede.***

*El Alcalde explica que se ha trabajado un proyecto por el que se pretende bajar la Escuela de Música al centro del municipio, mejorar la accesibilidad para personas de movilidad reducida y, además, rehabilitar una vivienda típica de Irurtzun. Este mismo proyecto integra un auditorio en el mismo edificio.*

*Para ello, y con el visto bueno del arquitecto municipal, se ha hecho una propuesta a la inmobiliaria gestora del edificio sito en el 12 de la calle Estella, la llamada Casa*

beherakoa.

*de la Miguelona, a la baja de la oferta.*

Hala ere, saltzaileak proposamena onartu baino lehen, hirugarren pertsona batek erreserba bat egin zuen, Udalak egindako eskaintzaren aurretikoa, eta, beraz, hark erosteko lehentasuna du hilabeteko epean.

*Sin embargo, antes de que la parte vendedora aceptara la propuesta, una tercera persona hizo una reserva, previa a la oferta realizada por el Ayuntamiento, por lo que aquella goza de preferencia de compra durante el plazo de un mes.*

Udalbatzari eskatzen zaion gaikuntza honen bidez, hirugarren interesdunak hilabeteko epean salerosketa egiten ez badu, alkateak higiezina azkar erosteko aukera izatea bilatzen da.

*Mediante la habilitación que se solicita a la Corporación, se busca que, en caso de que la tercera persona interesada no lleve a cabo la compraventa en el plazo de un mes, el Alcalde pueda actuar rápido en la adquisición del inmueble.*

Gaia eztabaidagai jarrita, Enrique Tenorio jaunak proiektuaren bideragarritasun ekonomikoaren gainean galdetu du. Alkateak erantzun du proiektuak gutxi gora behera 1.700.000€-ko zenbatekoa dela eta udal Kontuhartzailetzaren onespena duela.

*Sometido el asunto a debate, Don Enrique Tenorio pregunta por la viabilidad económica del proyecto, a lo cual el Alcalde ha respondido que el proyecto asciende a 1.700.000€, aproximadamente, y que cuenta con el visto bueno de la Intervención municipal.*

Eduardo Murugarren jaunak hartu du hitza, eta higiezinaren interesaren zioak zehaztu ditu: kokapenagatik, prezio egokiagatik eta interes arkitektoniko eta historikoagatik. Proiektua gauzatu ezin bada ere, denbora hobe baten esperoan geldi liteke.

*Toma la palabra Don Eduardo Murugarren, que detalla el interés en el inmueble por su ubicación, precio adecuado e interés arquitectónico e histórico que, incluso en el caso de no poder ejecutar el proyecto, el inmueble quedaría a la espera de un mejor tiempo.*

Enrique Tenorio jaunak galdetu du ea higiezinaren prezioa egokia den, barrualdean eraberritze integrala egiteko baitago. Alkateak erantzun du metro asko direla eraikigarriak eta, gainera, inbertsioa birgaitzeko laguntzekin osatzea dela asmoa.

*Don Enrique Tenorio pregunta si el precio del inmueble es adecuado, ya que en el interior está para reforma integral. El Alcalde responde que son muchos metros edificables y que, además, la idea es completar la inversión con ayudas a la rehabilitación.*

Bozkatzeari ekin zaio eta **Udalbatzak, aho batez, honako erabakia hartu du:**

*Se procede a votar y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

BAKARRA.- Alkatea Lizarra kaleko 12.ean dagoen eraikina zenbateko osoaren %10ean erreserbatzeko

*ÚNICO.- Habilitar al Alcalde para efectuar la reserva del inmueble sito en la calle Estella, Nº 12, por la cantidad*

gaitzea. Zenbateko hori 9.980 eurokoa da, ezar daitezkeen zergak alde batera utzita.

*del 10% del total, que ascendería a 9.980€ impuestos aplicables no incluidos.*

**6.- Dinabiden dagoen elkarlanerako espazioaren erabilerarako laguntzen sorreraren onespena, hala badagokio.**

***6.- Aprobación de la creación de ayudas para la utilización del espacio de coworking situado en Dinabide, si procede.***

Alkateak azaldu du Irurtzunen erroldatuta dauden eta eraldaketa digitalaren sektorean ibilbide profesionala hasten ari diren pertsonentzako laguntzak sortzeko asmoa dagoela. Laguntza horien bidez, gainera, Dinabideko espazioari bizitasuna ematea lortu nahi da.
Proiektu hori 2021eko aurrekontuan jaso zen, eta onuraduna lehenengo hiru urteetan laguntzeko asmoa du, urtero jaso beharreko zenbatekoa murriztuz.

*El Alcalde explica la intención de crear unas ayudas para personas empadronadas en Irurtzun que estén iniciando la andadura profesional en el sector de la transformación digital, por las que se pretende conseguir, además, aportar vitalidad al espacio de Dinabide.*
*Este proyecto, que fue recogido en el Presupuesto de 2021, pretende ayudar durante los tres primeros años, reduciendo la cuantía a percibir por la persona beneficiaria cada año.*

Egun forma juridikoa aztertzen ari da, eskumen inpropioa izan baitaiteke.

*Actualmente se está estudiando la forma jurídica, ya que pudiera tratarse de una competencia impropia.*

Gaia bozkagai jarrita, **Udalbatzak, bertaratutakoen aho batez, honako erabakia hartu du:**

*Se somete a votación y **el Pleno**, **por unanimidad de los y las concejales presentes, adopta el siguiente Acuerdo:***

LEHENENGOA.- Eraldaketa digitalaren sektorean ibilbide profesionala hasten duten pertsonentzako laguntzen proiektua onartzea, adierazitako baldintzetan.

*PRIMERO.- Aprobar el proyecto de ayudas a las personas que inicien su andadura profesional en el sector de la transformación digital, en los términos expuestos.*

BIGARRENA.- Proiektu hau aztertzen eta izapidetzen jarraitzea.

*SEGUNDO.- Continuar con el estudio y tramitación del presente proyecto.*

**7.- Nitxoa betiko uztea, hala badagokio.**

***7.- Cesión de nicho a perpetuidad, si procede.***

Alkateak esan du Saturnina Irurtia Sario andreak

*El Alcalde dice que se ha recibido solicitud de nicho a*

betiko nitxoaren eskaera egin duela.

*perpetuidad por parte de Doña Saturnina Irurtia Sario.*

**Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

***El Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- D eremuko E kaleko 36. nitxoa Saturnina Irurtia Sario andreari betiko uztea.

*PRIMERO.- Ceder a perpetuidad el nicho nº 36 de la calle E de la zona D a Doña Saturnina Irurtia Sario.*

BIGARRENA.- Honako akordioa eskatzaileari jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la persona solicitante.*

HIRUGARRENA.- Eskatzaileari jakinaraztea lagapen horrengatik ordaindu beharreko tasa 749 eurokoa dela eta ordaintzeko epea hilabetekoa dela, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

*TERCERO.- Notificar a la solicitante que la tasa a abonar por esta cesión asciende a 749 euros y el plazo para pagarla es de un mes, a contar desde el día siguiente al de la notificación de este acuerdo.*

**8.- EH Bilduko udal taldeak aurkeztutako mozioaren onespena, hala badagokio, Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotza ikertzeko eta argitzeko eskatzen duena.**

***8.- Aprobación, si procede, de la moción propuesta por el grupo municipal EH Bildu, por la que se exige que se investigue y esclarezca la muerte del joven navarro Mikel Zabalza.***

Alkateak bere Udal Taldeak, Aezkoako Batzarre Nagusiak eta Orbaitzetako Udalaren proposamenez, aurkeztutako mozioaren laburpen txiki bat egin du. Mozioan honako akordioak hartzea proposatzen da:

*El Alcalde hace un breve resumen de la moción presentada por su Grupo Municipal, a propuesta de la Junta General del Valle de Aezkoa y del Ayuntamiento de Orbaizeta, en la que se propone tomar los siguientes acuerdos:*

1.- Tortura legez kontrako indarkeria eta giza eskubideen urraketa gisa errefusatzea.

*1.- Rechazar la tortura como ejercicio de una violencia ilegítima y una vulneración de los derechos humanos.*

2.- Espainiako Gobernuari espediente honekin zerikusia duen guztia desklasifikatzeko eskatzea.

*2.- Pedir al Gobierno de España la desclasificación total de todo lo relacionado con este expediente.*

3.- Guardia Zibileko kapitain Gómez Nietok eta garai hartan CESIDeko Juan Alberto Peroteren koronel buruak parte hartzen zuten audioak agertu ondoren, audioen edukia sakon ikertzeko eskatzea, Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotzaren inguruko egia

*3.- Exigir que, tras la aparición de unos audios en los que intervienen el capitán de la Guardia Civil Gómez Nieto y el entonces coronel jefe del Cesid Juan Alberto Perote, se investigue a fondo el contenido de los mismos con el fin de saber la verdad entorno a la*

jakiteko.

*muerte del joven navarro Mikel Zabalza.*

Enrique Tenorio jaunak hartu du hitza, abstenitu egingo dela iragartzeko eta bere botoaren zentzua azaltzeko. Era guztietako eraso eta torturen aurka dagoela eta familia ulertzen duela esan du.

*Toma la palabra Don Enrique Tenorio, para anunciar que se va a abstener y explicar el sentido de su voto, diciendo que está en contra de todas las agresiones y torturas de todo tipo y que entiende a la familia.*

Gaia bozkagai jarrita, **Udalbatzak, bertaratutako EH Bilduko zazpi zinegotzien aldeko bozkekin eta Navarra Sumako zinegotziaren abstentzioarekin, honakoa erabaki du:**

*Se somete el asunto a votación y **la Corporación Municipal, con los votos a favor de las siete concejales y concejalas de EH Bildu presentes en la sesión y la abstención del concejal de Navarra Suma, aprueba el siguiente acuerdo:***

LEHENENGOA.- Aezkoako Batzarre Nagusiak eta Orbaitzetako Udalak proposatutako mozioa onartzea, Mikel Zabalza gazte nafarraren heriotza ikertzeko eta argitzeko eskatzen duena.

*PRIMERO.- Aprobar la moción propuesta por la Junta General del Valle de Aezkoa y del Ayuntamiento de Orbaizeta por la que se exige que se investigue y esclarezca la muerte del joven navarro Mikel Zabalza.*

BIGARRENA.- Erabaki hau Aezkoako Batzarre Nagusiari eta Orbaitzetako Udalari jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Notificar el presente acuerdo a la Junta General del Valle de Aezkoa y al Ayuntamiento de Orbaitzeta.*

**9.- Erregu eta galderak.**

***9.- Ruegos y preguntas.***

Alkateak udalerriko txertaketa prozesuari buruzko informazioa eman du, Osasun Etxearekin koordinazioan burutzen ari dena.

*El Alcalde informa de la evolución del proceso de vacunación en el municipio, que se está llevando a cabo en coordinación con el Centro de Salud.*

Enrique Tenorio jaunak galdetu du ea herriko jairik izango den erabakia dagoen eta alkateak erantzun dio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak ezarriko dituen irizpideen zain daudela, baina ez duela ematen ospatuko direnik.

*Don Enrique Tenorio pregunta si se ha decidido acerca de la celebración de las fiestas patronales, a lo que el Alcalde le responde que se está esperando a los criterios que formulará la Federación Navarra de Municipios y Concejos, pero que no parece que vayan a celebrarse.*

Gainera, Enrique Tenorio jaunak udal - igerilekuen atzekaldeko bidean banku bat jartzea proposatu du,

*Además, don Enrique Tenorio propone poner un banco en la vía trasera de las piscinas municipales, propuesta*

eta bertaratutakoek aho batez onartu dute proposamen hori.

*que es aceptada por unanimidad de las personas presentes.*

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 19:50ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 19:50 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

Alkatea / *El Alcalde,*
Aitor Larraza Carrera

33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)

Firmado digitalmente por 33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Fecha: 2021.06.24 12:32:12 +02'00'

ZIURTATZEN DUT
Idazkaria / *La Secretaria*
Eguzkiñe Aiesa Andres

24/06/2021

X Eguzkiñe.

Eguzkiñe Aiesa Andres
Idazkaria
Firmado por: 44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)